

MARTXOAREN 8A, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoaren 8a, Emakumeon Eguna, orain arte lortutakoa ospatzeko eguna ez ezik, honaino iristeko borroka egin duen Mugimendu Feministaren eta norbanakoen lana aitortzeko eta aurrera begirako erronkak mahai gainean jartzeko eguna da. Ezinbestekoa da eskubideen aldeko borrokan mugimenduak jendarte guztia inplikatzeko izan duen eraginaz mintzatzea. Alde horretatik, instituzio honi dagokion ardura hartzetik aurkezten dugu adierazpen hau.

Azken urteotan kezkaz bizi dugu nola ari den hazten diskurtso bat emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun estrukturala ukatzen duena, indarkeria matxista zalantzan jartzen duena eta feminismoa mehatxu bat balitz bezala gutxien duena.

Historian zehar berdintasunaren aurrerapenen aurrean gertatu den bezala, mugimendu antifeminista baten geraldian gaude gaur egun, diskurtso erreakzionario eta misoginoetan adierazten dena. Narratiba horiek oinarritzko konkistak zalantzan jartzea, nahasmendua sortzea eta indarkeria matxistaren existentzia deslegitimatzea bilatzen dute. Diskurtso antifeministak erasoaldi politiko eta kolektiboki antolatua osatzen dute, eta eztabaida publikoan ezin dira beste iritzi bat bezala onartu.

Berdintasunaren defentsa ez da aukera bat, giza eskubide unibertsala da, aitortua eta babestua. Hamarkadetan kolektiboki borrokatuz eta lan eginez lortu duten eskubidea da. emakumeek, mugimendu feministak, erakundeek eta pertsona aliatuek, batez ere, diskriminazioa desagerrarazteko, askatasunak zabaltzeko eta guztientzako aukerak bermatzeko.

Berdintasunean hezten duen, estereotipoak baztertzeko dituen eta errespetuan, askatasunean eta duintasunean oinarritutako harremanak sustatzen dituen gizartea aldarrikatzen dugu; baita indarkeria matxistaren biktimak eta bizirik atera direnak aintzat hartzen, laguntzen eta entzuten dituen ere. Izan ere, ozen eta garbi esaten dugu berdintasunik gabe ez dagoela erabateko demokraziarik, eta indarkeria matxista desagerrarazi gabe, ez dagoela guztiontzako askatasunik.

Horrekin batera, erakunde honek berretsi egin behar du zer-nolako konpromisoa duen eskubideen defentsarekin, indarkeria matxista mota guztiak desagerraraztearekin eta politika publikoen defentsarekin, negazionismoaren aurrean atzera ez egiteko eta autoritarismoaren aurrean amare ez emateko.

Horregatik, Astigarragako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Gure udalerri eta eskualdeetan, diskurtso misogino eta antifeministei aurre egiteko eta informazio faltsuen hedapena desaktibatzen laguntzea.
- Udaleko Berdintasuna saila giza baliabide egonkorrez ez ezik, Berdintasun zein barne Planak gauzatzeko beharrezko baliabide ekonomikoz hornitzea.
- Astigarragako Emakumeen Etxeari bere jardura eta lan politikoa gauzatzeko elkarlanean jarraitu eta beharrezkoak dituen baliabideak bermatzea.
- Berdintasun Mahaia elikatu eta indartzea, gobernantza eredu parte hartzaile eta demokratiko bat garatzeko asmoz.

- Berdintasun zein barne planen bidez, gobernantza ereduaren inguruan lan egitea eta emakumeen boteretzea sustatzeko bideak ezartzen jarraitzea.
- Mugimendu feministarekin batera zaintzen aldeko herri akordioarekin bat egin eta landutako puntuak espazio partekatuetan aurrera eramatea, zaintza mahain besteak beste.
- Hezkidetza plana abiatzea, hezkuntza formal eta ez formaleko erakunde zein eragileekin.

Dei egiten diegu herritarrei, mugimendu feministak gure herri eta eskualdeetan egingo dituen ekimen eta mobilizazioak babestu eta horietan parte hartzeko deia egiten dugu.